



LAZKAOKO BENEDITARREN FUNDAZIOAK EGIN BEHAR DITUEN ETA ADOSTUTAKO ARAUDIAREN MENDE EZ DAUDEN KONTRATAZIO PROZEDURETAN DERRIGORREZ BETE BEHARREKO JARRAIBIDEAK

1. Jarraibideen helburua

Lazkaoko Udalak, Lazkaoko Beneditar Elkarteak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak osatzen duten Lazkaoko Beneditarren Fundazioaren helburua da Euskal Herriko Ondarea aztertu, zabaldu, eta ezagutzea, eta zehatzago, Lazkaoko Beneditarren Artxiboko Euskal Fondoko funtsak zuzendu, kudeatu, mantendu eta sustatzea. Fondoa osorik hartuta, eta hura gordetzen egindako lanaren omenez eta lan hori aitortuz, beti Fondoari lotuta, izenez «Lazkaoko Beneditarren Fondoa» deituko da.

Lazkaoko Beneditarren Fundazioaren kontratatze jarduera Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Legeak (SPKL), urriaren 30ekoak arautzen du, lege horren esparru subjektiboan sartzan baita sektore publikoko zati gisa; eta aldi berean, herri administrazioez bestelako botere esleitzailerak dagokio, aipatutako legeak 3.1.d) eta 3.3.d) artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Lazkaoko Beneditarren Fundazioak, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 175. artikuluan xedatutakoa betetzearren, barne jarraibide hauek eratu ditu, adostutako araudirik ez duten kontratuetan kontratazio prozedura erregulatzeko xedez, hau da, kontratua esleitzerakoan, publikotasun, konkurrentzia, gardentasun, konfidentzialtasun, berdintasun eta diskriminazio ezaren printzipioen eraginkortasuna bermatuta gera dadin, kontratua eskaintza ekonomiko onuragarrienari egingo zaiola bermatzearekin batera.

Adostutako araudiari lotu gabeko kontratuak, Sektore Publikoko Kontratuen Legean halakotzat definitutakoak dira. Kontratu horietan, beren balio zenbatetsiaren atalaseak konputatzen dira, Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) sartu gabe, eta SPKLko 76. artikuluan jasotako gainerako balorazio arauak.

Jarraibide hauek, Lazkaoko Beneditarren Fundazioaren Patronatuak onartu ondoren, jarraibide horien arabera araututako kontratuen esleipen prozeduretan parte hartzeko interesatuta dauden guztien eskura ipiniko dira, eta sozietateko kontratugile-profilean emango dira argitara.



2. Xedapen orokorrak

Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Legeak, urriaren 30ekoak, Atariko Tituluko II. kapituluan (5. art.tik 21. art.ra) aipatzen dituen eta Lazkaoko Beneditarren Fundazioak egiten dituen kontratuek honako jarraibide hauek bete beharko dituzte, baldin eta aipatutako legeak 13. art.tik 16. art.ra ezarritakoaren arabera, adostutako araudiari lotuak ez badaude.

Jarraibide hauetan ezarritakoa baldintzatu gabe, entitatearen izaerari eta sortzen zaizkion kontratazio premiei dagozkien SPKLko xedapenak aplikatuko dira.

Lazkaoko Beneditarren Fundazioak egiten dituen kontratuetan, SPKLak 20. eta 21. artikuluetan ezarritako araubidea aplikatuko da.

2.1. Kontratazeko gaitasuna

Jarduteko gaitasun osoa duten eta beren kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko edo profesionala egiaztatzen duten pertsona fisiko edo juridikoek bakarrik kontratatu ahal izango dute Lazkaoko Beneditarren Fundazioarekin, betiere SPKLak 43. art.tik 50. art.ra ezarritako kontratazeko debekurik ez badute. Era berean, kontratazio bakoitzerako finkatzen diren gutxieneko kaudimen ekonomiko, finantzario, eta profesionala edota teknikoa beharko dute. Hala ere, betekizun horien ordez sailkapenarena ezar daiteke SPKLaren arabera bidezko denean.

Kontratazeko gaitasuna egiaztatzeko gutxieneko kaudimen betekizunak eta legezko agiriak, lizitazio iragarkian bertan adierazi eta kontratu-agirian zehaztuko dira. Gutxieneko betekizun horiek, dena den, kontratuaren xedeari lotuak egon beharko dute eta xede horri dagokion proportzioan.

2.2. Kontratazio organoa

Lazkaoko Beneditarren Fundazioaren Patronatua izango da Kontratazio Organoa, baina kontratazio gaietan dagozkion eskumenak edo gaitasunak besteren esku utz ditzake sozietateko estatutuekin bat etorriz.



2.3. Bermeak

2.3.1. Behin-behineko bermea

Kontratazio Organoak, kasuan kasuko gorabeherak aintzat hartuz, berme bat ezartzeko eskakizuna erabaki dezake baldintzen agirian, lizitatzailen eskaintzak kontratua esleitu arte mantenduko direla ziurtatze-arren.

Behin-behineko bermearen kopurua –kontratuaren aurrekontuaren ehuneko 3 gehienez– baldintzen agirian zehaztuko da, hori itzultzeko prozedura bezalaxe. Era berean, baldintzen agirian zehaztuko da bermea ezartzeko era; eta hau, edozein kasutan ere, SPKLak 84. artikuluan aurreikusitakoren bat izango da.

Behin-behineko berme hori kontratua behin betiko esleitu bezain laster iraungiko da automatikoki, eta une horretan itzuliko zaie lizitatzaileri. Esleipendun suertatzen den lizitatzailiak, behin-behineko bermearen kopurua behin betiko bermearen zati gisa erabili dezake; edo bestela, behin betiko berme berria ezar dezake osorik; kasu horretan, behin-behinekoa automatikoki deuseztatuko da.

Kontratazio Organoak, kontratua esleitu baino lehen beren proposamena inolako justifikaziorik gabe bertan behera uzten duten enpresen behin-behineko bermea konfiska dezake.

2.3.2. Behin betiko bermea

Kontratuen esleipendunek Kontratazio Organoaren eskueran ipini beharko dute behin betiko bermea, adjudikazioaren zenbatekoaren ehuneko 5 gehienez. Hala ere, kopuru zehatza baldintzen agirian finkatuko da, berme hori itzultzeko prozedura bezalaxe. Kontratuen prezioak behin-behinekoak direnean, gehieneko prezio finkatuaren arabera kalkulatu da behin betiko bermearen portzentajea. Kontratuaren prezioa banakako prezioen arabera zehazten denean, lizitaziorako oinarritzko aurrekontuaren arabera zehaztuko da behin betiko bermearen kopurua.

Hala eta guztiz ere, Kontratazio Organoak, kasuan kasuko gorabeherak aintzat hartuz, bermea jartzeko betekizunetik libre utz dezake esleipenduna. Hori, dena den, behar bezala justifikatu beharko da baldintzen agirian.

Bermea SPKLko 84. artikuluan aurreikusitako moduren batean ipiniko da, eta hau, bermearen epea amaitzean itzuliko zaio esleipendunari, kasuan kasuko kontratua behar bezala bete duela egiaztatu ondoren; edo



bestela, kontratua desegintzat ematen denean, kontratistari lepora dakioken errurik gabe. Kontratuaren xedearen zati bat bakarrik jasotzen denean, soil-soilik zati horri dagokion berme kopuruaren itzulketa edo kitzeta eska dezake kontratistak, baldin eta baldintza administratibo berezien agirian gorabehera hori berariaz baimenduta badago.

Kontratua lagatzen bada, lagatzaileak jarritako bermea ez da itzuliko edo deuseztatuko, harik eta lagapen-hartzaileak dagokion bermea formalki eratzen duen arte.

Berme hauei dagokienez, SPKLeko 87. art-tik 90. art.ra arte ezarritako araubidea aplikatuko da.

2.4. Ordaintzeko epea

Kontratistei ordaintzeko epea SPKLko 200.4 artikuluan ezarritakoaren arabera zehaztuko da oro har, eta lizitazioan adieraziko da beti. Hala ere, behar bezala arrazoitutako aparteko kasuetan, arau horretan adierazitako gehieneko epea baino ordaintzeko epe luzeagoa erabaki ahal izango da. Ordaintzeko epea, epe hori konputatzeko modua, gerta litezkeen interesen sortzapena, eta justifikaziorik gabeko atzeratze kasuetan, zehazten diren epeetan esleipendunari legozkioken ahalmenak lizitazio iragarkietan adierazi beharko dira derrigorrez; eta baldintza agirietan ere bai, halakorik eginez gero.

2.5. Kontratuen iraupena

Prestazioen izaera, hauen finantzaketaren ezaugarriak, eta prestazioen burutzapena aldika-aldika konkurrentzia pean ezartzeko premia aintzat hartuz zehaztuko da kontratuen iraupena.

Kontratua egiterakoan luzapen bat edo gehiago aurreikus daitezke, baldin eta luzapen horien eraginez kontratuaren ezaugarriak aldatzen ez badira eta, betiere, gehieneko epea 5 urtetik gorakoa ez bada. Baldintzen agiria egiten bada, arestian aipatutako baldintza hauek agiri horretan adierazi beharko dira espreski.

Jarraibide hauetako 3.1 puntuan aipatutako diren kontratu txikiek urtebeteko iraupena izango dute gehienez, inolako luzapenik egiteko aukerarik gabe.

2.6. Bestelako xedapenak

Formalizatzen diren kontratuak SPKLko 26. artikuluan ezarritako baldintzak arautu beharko dituzte gutxienez. Horiez gain, kontratua hobeto betetzen lagunduko duten bestelako xedapenak ere ezar daitezke, baina betiere, lizitatzailerei konfidentzialtasun, gardentasun, berdintasun eta diskriminazio ezaren printzipioak



errespetatuz. Era berean, lizitazio iragarkian edo baldintzen agirian hala adierazten bada, Lazkaoko Beneditarren Fundazioak kontratuko baldintza batzuk bere aldetik aldatu ahal izango ditu, eta baita prezioak berrikusi ere, berariaz ezarritako gorabehereri jarraituz, berrikuspen hori bidezkoztat jotzen badu. Aldaketa horiek, edozein kasutan ere, justifikatu egin beharko dira.

Lizitatuzaileari baliabideak lagatzeko eta azpikontratatzeko dagokion ahalmena eta horretarako baldintzak, Kontratazio Organoak ezarri behar ditu espreski. Baldintzen agiria egiten bada, arestian aipatutako baldintza hauek agiri horretan adierazi beharko dira.

Lizitatuzaileen gaitasuna adierazteko exijitzen diren kaudimen edota sailkapen betekizunak ere lizitazio iragarkian zehaztuko dira; eta, baldintzen agirian ere bai, halakorik izanez gero.

Atzeraezinak diren premiei erantzuteko kontratuen kasuan, kontratu horiek presako tramitazioaz bidera ditzake Lazkaoko Beneditarren Fundazioak. Kontratazio Organoak behar bezala arrazoitu beharko du kontratu bat presakotzat izendatu izana. Horrelakoetan, jarraibide hauetan adierazitako epe orokorrak nabarmen murriztu ahal izango dira.

Lazkaoko Beneditarren Fundazioak kontratua gauzatzeko baldintza bereziak ezar ditzake SPKLko 102. artikuluan ezarritakoari jarraituz. Eta baldintza berezi horiek, lizitazio iragarkian eta baldintzen agirian edota kontratuan bertan adieraziko ditu.

Lazkaoko Beneditarren Fundazioak berariaz finkatu beharko ditu kontratua indargabetzera bultza dezaketen arrazoiak eta kalte-ordainak eragin ditzaketenak. Kasu honetan, gainera, kalte-ordainaren zenbatekoa eta kalkulatzeko modua adieraziko ditu. Baldintzen agiria egiten bada, arestian aipatutako informazioa agiri horretan adierazi beharko da.

3. Kontratatzeko prozedurak

Lazkaoko Beneditarren Fundazioak kontratatze prozedura hauek erabiliko ditu:

3.1. Zuzenean esleitzea

Obra txikitzat jotzen dira 50.000 eurotik beherako aurrekontua duten obra-kontratuak, eta 18.000 eurotik beherako aurrekontua duten gainerako kontratu motak.



Era honetako kontratuen espedienteak tramitatu ahal izateko, gutxienez gastua onartu beharko da, eta gastu horri dagokion faktura erantsi. Obren kontratu txikia denean, arestian aipatutakoez gain, obren aurrekontua eta obraren izaerak edota arauak agintzen dituzten proiektuak edo txostenak ere erantsi beharko zaizkio espedienteari.

Kontratu txikiak zuzenean esleitu ahal izango zaizkio jarduteko gaitasuna duen edozein enpresariri, baldin eta prestazioa emateko beharrezko gaitasun profesionala badu.

Kontratu horiek urtebeteko iraupena izango dute gehienez, inolako luzapenik egiteko aukerarik gabe.

3.2. Prozedura irekia

Prozedura hau erabili daiteke 50.000 eta 5.150.000 euro bitarteko adjudikazio prezioa duten kontratuak esleitzeko, obra-kontratuak badira; eta 50.000 eta 206.000 euro bitarteko adjudikazio prezioa duten kontratuak esleitzeko, hornidura edota zerbitzu kontratuak badira.

Prozedura irekian, enpresari interesdun guztiek aurkez dezakete beren proposamena, baina kontratuko baldintzak ez dira inolaz ere lizitzaileekin negoziatuko.

3.2.1. Kontratu prestatzea

Kontratu hauek prestatzerakoan, kontratua egitearen premia arrazoitu beharko da. Hori horrela, kontratuaren bidez bete nahi diren premien izaera eta hedadura, kontratuaren xedearen egokitasuna, eta horiek betetzeko edukia adierazi beharko dira zehaztasun osoz; eta horrek guztiak erasota geratu behar du kontratua prestatzeko dokumentazioan.

Lazkaoko Beneditarren Fundazioak baldintzen agiri bat eratuko du era honetako kontratuarentzat. Agiri horretan ezarriko ditu kontratuaren oinarriko ezaugarriak, aldaerak onartzeko erregimena, kontratua esleitzeko irizpideak eta lizitzaileek edo esleipendunak ezarri beharreko bermeak, halakorik izanez gero. Eta, enplegatzailea subrogatzea beharrezkoa den kasuetan, 104. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio. Baldintzen agiriak kontratuaren zati izango dira.

3.2.2. Publizitatea

Lizitazio iragarkiak interneten emango dira argitara, Lazkaoko Beneditarren Fundazioaren kontratugile-profilean. Horrez gain, kontratazio espedientea egunkari ofizialetan, entitatearen web orrian edota bidezkotzat



jo daitekeen beste edozein bide erabiliz argitaratzea erabaki daiteke.

Lizitazio iragarkian proposamenak aurkezteko epea adieraziko da. Epe hori, kontratuaren xedearen konplexutasunaren arabera zentzuz beharrezkoa izan daitekeen denbora kontuan hartuta ezarriko da, baina - gutxienez ere hamar egunekoak izango da iragarkia argitaratzen denetik hasita.

Adierazitakoa hala izanik ere, Fundazioak SPKLko 42. artikuluan aipatzen den sistema informatikoa eskuratu bitartean, sozietatearen kontratatze jarduerari buruzko informazio guztia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da nahitaez.

3.2.3. Esleitzea.

Kontratazio Organoak Kontratazio Mahaiaren laguntza izango du, eta hau izango da, hain zuzen ere, eskaintzak jendaurrean irekitzeko eta baloratzeko organo eskuduna. Kontratazio Mahaiaren osaketa eta eratzeko prozedura baldintzen agirian adieraziko dira.

Kontratazio Organoak, aurkeztutako proposamenak baloratu ondoren, kontratuaren behin-behineko esleipena egingo dio proposamen ekonomiko onuragarriena aurkeztu duen lizitatzaileri.

Lizitatzailerei esleipenaren berri eman beharko zaie. Esleipena kontratugile-profilean argitaratuko da beti. Hain zuzen ere, lizitatzaille bakoitzari banan-banan jakinarazpena egin ordez, argitaratze-bide hori erabili ahal izango da.

Esleipendun suertatu den lizitatzailleak ez badu betetzen kontratua burutzeko beharrezkoa den baldintzaren bat, Lazkaoko Beneditarren Fundazioak lehiakide horren ondorengoari edo ondorengoei esleitu ahal izango die kontratua, eskaintzen azken sailkapeneko hurrenkeraren arabera, baldin eta halako aukerarik badago eta, betiere, esleipendun berria ados badago.

3.2.4. Formalizatzea

Kontratuak idatziz formalizatu beharko dira, baldintzen agirian ezarritako epean eta kontratua gauzatzeari ekin aurretik. Kontratu hori publiko egin beharko da, baldintzen agiriak hala agintzen badu.



Kontratatari egoztekoak diren arrazoiengatik kontratua ezin bada epe horretan formalizatu, Lazkaoko Beneditarren Fundazioak kontratua indargabetutzat jotzea erabaki dezake. Era berean, esleipendunak jarritako behin-behineko bermea konfiska dezake, halakorik izanez gero.

Kontratua ez formalizatu izanaren arrazoiak Lazkaoko Beneditarren Fundazioari lepora badakizkioke, kontratua desegitea eska dezake kontratistak.

3.3. Prozedura negoziatua

Lazkaoko Beneditarren Fundazioak prozedura honi hel diezaioke, SPKLko 154., 155., 157., 158. eta 159. artikuluetan adierazitako kasuren bat gertatzen denean.

Prozedura negoziatuan, kontratua Kontratazio Organoak arrazoiz hautatutako lizitatzailari esleituko zaio. Horretarako, ordea, aurrez lehiakide desberdinekin hitz egingo du eta horietako bat edo besterekin kontratuko baldintzak negoziatuko ditu.

3.3.1. Prestatzea

50.000 eurotik gorako kontratuetan, Lazkaoko Beneditarren Fundazioak agiri bat eratuko du. Agiri horretan, SPKLko 121.2 artikuluan aipatutako baldintzak jasoko ditu eta baita negoziatu beharreko alderdi ekonomiko eta teknikoak ere, halakorik izanez gero behintzat.

3.3.2. Publizitatea

Sektore Publikoko Kontratuen Legean –154. art., a) eta b) letrak; 155. art., b) letra, edota 158. art., a) letra– aurreikusitako zirkunstantziak gertatzen badira eta, ondorioz, prozedura negoziatua erabili behar bada, lizitazio iragarkia argitaratu beharko du Lazkaoko Beneditarren Fundazioak. Iragarki hori interneten emango da argitara, Lazkaoko Beneditarren Fundazioaren kontratugile-profilean.

Lizitazio iragarkian proposamenak aurkezteko epea adieraziko da. Epe hori, kontratuaren xedearen konplexutasunaren arabera zentzuz beharrezkoa izan daitekeen denbora kontuan hartuta ezarriko da, baina - gutxienez ere hamar egunekoa izango da iragarkia argitaratzen denetik hasita.

Horrez gain, kontratazio espedientea egunkari ofizialetan, erakundearen web orrian edota bidezkotzat jo daitekeen beste edozein bide erabiliz argitaratzea erabaki daiteke. Prozedura negoziatura jotzeko arrazoiak aurreko prozeduretan eskaintza irregularrak edo onartezinak aurkeztu izana bada, iragarkia ez da nahitaez



argitaratu beharrik izango, baldin eta aurrez erabilitako prozedura irekian edo elkarriketa lehiakorreko prozeduran, exijitutako betekizun formal guztien arabera eskaintzak aurkeztu dituzten lizitatzaille guztiak, eta horiek bakarrik, kontratuaren negoziazioan sartzen badira.

Era berean, araudi adostua bete beharrik ez duten eta prozedura negoziatuaren bitartez esleiri daitezkeen kontratuetan –SPKLko 155.d), 157.f), 158.e) eta 159. artikuluetan adierazitako kopurura iristen ez direlako–, puntu honetako lehen paragrafoan aurreikusitakoaren arabera argitaratu beharko dira zenbatetsitako balioa 200.000 eurotik gorakoa duten obra-kontratuen lizitazio iragarkiak, edota 60.000 eurotik gorakoa duten gainerako kontratuenak.

Prozedura negoziatura jotzen den gainerako kasuetan lizitazioa ez da derrigorrez argitaratu beharko, baina lehiakideen konkurrentzia ziurtatu beharko da, SPKLko 162. artikuluan ezarritakoari jarraituz. Horrelakoetan, hautatutako pertsona fisiko eta juridiko guztiei idatziz eta aldi berean eskatuko zaizkie eskaintzak.

3.3.3. Esleitzea

Prozedura negoziatuan, ahal bada behintzat, kontratuaren xedea betetzeko gaitasuna duten gutxienez hiru enpresari eskatuko zaie eskaintza.

Kontratazio Organoak lizitatzailleekin hauek aurkeztutako proposamenak negoziatuko ditu, baldintzen agirian edota agiri osagarrietan ezarritako betekizunetara egokitzeko eta, horrela, ekonomikoki onuragarriena den eskaintza identifikatu ahal izateko.

Horniduren edo zerbitzuen kontratuetan, esleipenaren prezioa 18.000 eta 50.000 euro bitartekoa bada, eta zehaztapen teknikoak argi eta garbi adierazita badaude, hasieran aurkeztutako proposamenak baloratzeko soila nahikoa izango da negoziazioa egintzat jotzeko.

Kontratazio Organoak, aurkeztutako proposamenak baloratu ondoren, kontratuaren behin-behineko esleipena egingo dio proposamen ekonomiko onuragarriena aurkeztu duen lizitatzaileri.

Publizitatea eskatzen duten prozedura negoziatuetan, lizitatzaillei esleipenaren berri eman beharko zaie. Edozein kasutan ere, esleipena kontratugile-profilean argitaratuko da. Hain zuzen ere, lizitatzaille bakoitzari banan-banan jakinarazpena egin ordez, argitaratze-bide hori erabili ahal izango da.



Esleipendun suertatu den lizitatzailerak ez badu betetzen kontratua burutzeko beharrezkoa den baldintzaren bat, Lazkaoko Beneditarren Fundazioak lehiakide horren ondorengoari edo ondorengoei esleitu ahal izango die kontratua, eskaintzen azken sailkapeneko hurrenkeraren arabera, baldin eta halako aukerarik badago eta, betiere, esleipendun berria ados badago.

3.3.4. Formalizatzea

3.2.4. atalean prozedura irekietarako adierazitakoa aplikatuko da.

Prozedura honetan ezarritakoaren arabera, baldintzen agiria egitea ezinbestekoa ez den kasuetan, kontratua formalizatzeko epea bi aldeen artean adostuko da.

3.4. Lehiaketa-elkarrizketa

Lazkaoko Beneditarren Fundazioak prozedura hau erabili ahal izango du SPKLko 164.1 eta 164.2 artikuluetan aipatutako kasuren bat gertatzen denean.

Lehiaketa-elkarrizketan, Lazkaoko Beneditarren Fundazioko Kontratazio Organoak elkarrizketa bat antolatuko du aukeratutako hautagaiekin, hauek hala eskatu ondoren, beren premiak bete ditzaketen irtenbidea edo irtenbideak garatzeko. Aukeratutako hautagaiek irtenbide horiek hartuko dituzte, hain zuzen, beren eskaintza egiteko oinarri gisa. Kontratazio Organoak sari edo konpentsazio bat ezar dezake elkarrizketan parte hartzen dutenentzako.

3.4.1. Prestatzea

50.000 eurotik gorako kontratuetan, Lazkaoko Beneditarren Fundazioak agiri bat eratuko du, SPKLko 121.2 artikuluan xedatutakoaren arabera. Agiri horretan, elkarrizketaren xede izango diren alderdi ekonomiko eta teknikoak adieraziko ditu, halakorik izanez gero behintzat; eta, era berean, proposamenak aurkezteko epeak ezarriko ditu, kontratuaren xedearen konplexutasunaren arabera zentzuz beharrezkoa izan daitekeen denbora kontuan hartuta.

3.4.2. Publizitatea

Lehiaketa-elkarrizketara jotzen bada Sektore Publikoko Kontratuen Legean aurreikusitako zirkunstantziak gertatzen direlako, eta kontratuaren prezioak 50.000 euro gainditzen ez baditu, lizitazio iragarkia argitaratu beharko du Lazkaoko Beneditarren Fundazioak. Iragarki hori interneten emango da argitara,



Lazkaoko Beneditarren Fundazioaren kontratugile-profilean. Horrez gain, kontratazio espedientea egunkari ofizialetan, erakundearen web orrian edota bidezkotzat jo daitekeen beste edozein bide erabiliz argitaratzea erabaki daiteke. Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 165. artikuluan ezarritako irizpideei jarraituz, lizitazio iragarkiak honakoak zehaztu beharko ditu: Hautagaiak hautatzeko irizpideak, gutxienerako hautagai kopurua, eta lehiaketan parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea.

Lehiaketa-elkarrizketa erabiltzen den gainerako kasuetan lizitazioa ez da derrigorrez argitaratu beharko, baina lehiakideen konkurrentzia ziurtatu beharko da, elkarrizketan gutxienez hiru enpresaren partaidetza bermatuz.

3.4.3. Elkarrizketa hautagaiekin

SPKLak 166. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio.

3.4.4. Esleitzea

SPKLak 167. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da.

Lizitatzailerik esleipenaren berri eman beharko zaie. Edozein kasutan ere, esleipena kontratugile-profilean argitaratuko da. Hain zuzen ere, lizitatzailerik bakoitzari banan-banan jakinarazpena egin ordez, argitaratze-bide hori erabili ahal izango da.

3.4.5. Formalizatzea

3.2.4 puntuan prozedura irekiari buruz ezarritakoa aplikatuko da.

3.5. Proiektu lehiaketa

Lazkaoko Beneditarren Fundazioak proiektu lehiaketan prozedura erabili ahal izango du SPKLko 168. artikuluan aipatutako kasuren bat ematen denean; eta horrelakoetan, aipatutako legeak 167. art.tik 172. art.ra xedatutakoa ere aplikatuko da. Hala eta guztiz ere, 50.000 eurotik gorako kontratuen lizitazioari buruzko informazioa Lazkaoko Beneditarren Fundazioaren kontratugile-profilean txertatzearekin betetzat joko dira publizitate printzipiotik eratorritako eskakizunak.



4. Lizitazio agintzen aurka egitea

Adostutako araudiari lotu gabeko kontratuak, jurisdikzio zibilean inpugnatu ahal izango dira.

5. Indarraldia

Jarraibide hauek Lazkaoko Beneditarren Fundazioak egiten dituen kontratu guztietan aplikatuko dira, onartzen diren une beretik aurrera.

Jarraibide iragankor bakarra

Sozietateak SPKLko 42. artikuluan aipatzen den sistema informatikoa eskuratu bitartean, jarraibide hauek eta Lazkaoko Beneditarren Fundazioaren kontratatze jarduerari buruzko informazio guztia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Fundazioak erabakitzen dituen gainerako egunkari ofizialetan argitaratuko dira.

Lazkao, 2011ko ekainaren 9a.— Rufino Mujika Mendia, Fundazioaren Presidentea.